

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Lorezaintza, garbiketa eta mantentzeko peoiak aldi baterako kontratatzeko lan poltsa baterako deialdia arautuko duten oinarriak

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da aldi baterako zerbitzuetarako langileak hautatzea. Horretarako, lorezaintza, garbiketa eta mantentzeko peoien lan poltsa bat sortuko da, LT sailkapen taldekoa.

Eginkizunak:

- Lorategiak, jardinerak eta zuhaitzak ureztatzea, oro har.
- Lorategi eta berdeguneetako belarra moztea.
- Zuhaitz txorkoak eta lorategiak aitzurtu eta jorratzea, oro har.
- Lorategiak ongarritzea.
- Zuhaitzak eta zuhaixkak inautzea.
- Heskaiak moztea.
- Berdeguneak mantentzeko behar den beste edozein.
- Paperontziak batzea.
- Kaleak eskuz eta erraztatzeke makinaz ekortzea.
- Haizagailua, motosega, motozerra eta atoi gurdia duen ibilgailua erabiltzea.
- Konponketa txikiak bide publikoetan eta udal eraikinetan.
- Udal hilerria mantendu eta garbitzea.
- Ibai ibilgua eta haren ertzak mantendu eta garbitzea.
- Estolderia eta saneamendu sarea mantendu eta garbitzea.
- Karpak, eszenatokiak eta gainerako osagarriak muntatu eta desmuntatzea.

2. Hautagaien betekizunak

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, betekizun hauek bete beharko dira:

a) 18 urte beteta edukitzea.

b) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukaten estaturen bateko kide izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legez bananduta ez badaude, bai eta herritartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoek ere —baldin eta horiek ere legez bereizita ez badaude—. Azken horiek hogeita bat urte baino gutxiago izan beharko dute edo bestela gurasoen kontura bizi.

Era berean, aurreko paragrafoetara bildu ez diren atzerriko pertsonak ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta espainiar estatuan bizi badira. Hautatzen badituzte, kontratuaren helburu den jarduera egiteko administrazio baimena dutela egiaztatu beharko dute, kontratua formalizatu baino lehen.

- c) Lehen mailako ikasketak ziurtatzen dituen titulua edo baliokidea edukitzea.
- d) Behar den besteko gaitasun funtzionala izatea zereginak betetzeko.
- e) Diziplina espediente bidez edozein administrazioetatik baztertuta ez egotea.
- f) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sartuta ez egotea.
- g) B1 eta E motako gidabaimena edukitzea.

Baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean eduki beharko dira.

3. Lan baldintzak

Kontratuaren ordainsaria lanpostuen zerrendaren arabera izango da.

Ordutegia astelehenetik igandera izango da (biak barne).

4. Eskabidea eta onarpena

4.1. Lan poltsarako deialdian parte hartzeko eskabideak Dulantziko alkateari zuzendu behar zaizkio eta Dulantziko Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar dira bulego orduetan (09:00-14:00).

Eskaera orriak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikulua ezarri dituen bide eta bitartekoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira.

4.2. Lehenengo deialdiko eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik hasita. Hurrengo deialdietako epeak garaia denean ezarriko dira.

4.3. Eskabidea oinarrien I. eranskinean kopiatutako ereduaren arabera egin behar da eta eskatutako titulazioaren fotokopia erantsi behar zaio.

4.4. Alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak ere aurkeztu behar dira eskabidearekin batera.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta behar bezala frogatzen diren merezimenak baino ez dira baloratuko.

Administrazio publikoan egindako zerbitzuak ez dira frogatu beharko, langileria kudeatzeko dagokion zerbitzuan berariaz aitortuta baldin badaude.

Eskabide orriak aurkezteko epea amaituta, gobernu batzordeak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du.

Ebazpen hori udalaren iragarki taulan argitaratu eta erakutsiko da, baita web orri honetan ere: www.alegria-dulantzi.eus.

Zerrenda horietan baztertu gisa ageri diren izangaiek bost eguneko epea izango dute bazterketaren aurkako erreklamazioak jarri eta hura eragiten duten akats edo agiriak zuzentzeko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, izangaia onartzea ala baztertea erabaki zuenak ebatziko ditu erreklamazioak.

5. Epaimahai kalifikatzailea

Hauek izango dira epaimahaikideak:

Lehendakaria: Vanessa Domínguez Casal.

Ordezkoa: Doña Marta Ramírez Gómez.

Bokalak: Pedro María Sáez de Maturana Gallardo.

Patricia Álvarez Lavín.

Idazkaria: Inmaculada Galerón Iglesias.

Ordezkoa: Fernando Alonso Puente.

Nolanahi ere, epaimahaiak aholkulariak erabili ahal izango ditu hautaketa prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako.

Epaimahaiko kideek ez dute esku hartuko eta udaleko alkateari jakinaraziko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada. Izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, lege horren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan jasotako arrazoren bat bada.

Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik, ez baitu botorik izango.

Epaimahaiaren erabakiak bertan dauden botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketarik badago, lehendakari diharduenaren botoak ebatziko du.

Epaimahaia, orain arte esandakoez gainera, kide bakoitzaren ordezkoein osatuko da, hau da, titularrekin batera izendatuko diren ordezkoein.

Epaimahaia ezin izango da eratu eta ezingo du jardun, kideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezko, ez baldin badago.

6. Hautaketa prozesua hasi eta gauzatzea

Oposizioko ariketa bakarra egiteko lekua eta data udaleko iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.alegria-dulantzi.eus) argitaratuko dira, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onesten duen ebazpenarekin batera.

Oposizioko gainerako ariketen iragarkiak epaimahaiak argitaratuko ditu aurreko probak egin diren lokaletan edo, hala badagokio, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian: www.alegria-dulantzi.eus.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie izangaiei.

Agertzen ez direnak baztertuta geratuko dira.

Prozeduraren edozein unetan epaimahaiak jakiten badu hautagairen batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako betekizunak, izangaia deialditik kanpo geratuko da, interesdunari entzun ondoren, eta hautaketa prozesurako deialdia egin duen agintaritzari jakinaraziko zaio egunean bertan.

7. Hautaketa prozesua

Izangaien hautaketa prozesuan fase hauek izango dira:

A fasea: oposizioa.

Lehen ariketa. Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Epaimahaiaren aurrean ebatzi beharko dira epaimahaiak lanpostuaren eginkizunekin lotuta planteatzen dituen kasu praktiko batzuk, oinarritzko igeltserotzari, oinarritzko elektrizitateari, oinarritzko pinturari, oinarritzko lorezaintzari, garbiketari eta abarri buruzkoak.

Oposizioa epaimahaikideek emandako puntuazioen batuketaz kalifikatuko da, guztirakoa kide kopuruaz zatitu, eta zatidura ariketa bakoitzaren behin betiko kalifikazioa izango da.

Puntuazioa 20 puntukoa izango da gehienez, eta 10 puntu beharko dira proba gainditzeko.

B fasea: lehiaketa.

Oposizio fasea gainditzen duten izangaiak lehiaketa fasera pasako dira.

Epaimahaiak meritu hauek balioetsiko ditu, eskabidean alegatu eta behar bezala egiaztatu badira:

Prestakuntza.

Elektrizitate, igeltserotza, pintura, iturgintza eta lorezaintzako lanbide txartel bakoitzeko: 0,50 puntu.

Gehienez, 2 puntu.

Lan esperientzia.

Lortu nahi den lanpostuaren antzeko batean egindako zerbitzuengatik, 0,15 puntu hilabeteko, eta gehienez ere 3 puntu.

Euskara.

Lanpostuak derrigortasun datarik ez duenez, honako baremo honen arabera baloratuko da euskararen ezagutza:

– 1. hizkuntza eskakizuna: 5 puntu.

8. Gainditu dutenen zerrenda, agiriak aurkeztea eta kontratazioa

Berdinketa gertatuz gero honela ebatziko da:

Lan esperientzian puntuaziorik handiena duen izangaiaren alde; bigarren tokian, prestakuntzan puntuaziorik handiena duena. eta azkenik. zozketa bidez puntuazio bera duten izangaien artean.

Izangaien kalifikazioa amaituta, epaimahaiak izangai bakoitzaren lan poltsako kalifikazio edo ordena proposamena igorriko dio gobernu batzordeari.

Proposatutako izangaiak deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzen egiaztagiria aurkeztu behar ditu, epaimahaiaren proposamena argitaratu eta 5 egutegi eguneko epearen barruan, udaleko idazkaritzan, hots:

a) NANaren fotokopia, behar bezala konpultsatuta.

b) Zinpeko adierazpena, kargu publikoa betetzeko ezgaituta ez dagoela eta administrazio publikoaren zerbitzutik diziiplina espediente bidez bereizita ez dagoela adierazten duena.

c) Zinpeko adierazpena, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 33/84 Legean jasotako bateraezintasun kausaren batean sartuta ez dagoela egiaztatzen duena.

d) Deialdiaren oinarrietan eskatutako tituluaren egiaztagiria.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposaturiko izangaiak ez balu aipatutako epe barruan dokumentazioa aurkeztuko edo ez balitu eskatutako betekizunak beteko, ezingo litzateke kontratatu, eta haren jarduketa guztiak baliogabetuko lirake, eta erantzukizuna izan lezake hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidean egindako faltsukeriagatik.

9. Gorabeherak

Epaimahaiari baimena eman zaio sortzen diren zalantzak argitu eta aukeraketa prozesua onez burutu dadin behar diren erabaki guztiak hartzeko, oinarri hauetan jasota ez dagoen guztiari dagokionez.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien eta haietatik zein epaimahaiaren jardueraren ondorioz sor daitezkeen administrazio egintza guztien aurka egin dezakete, Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Oinarriek jasotzen ez dituzten kontuetan, hauek aplikatuko dira: langileria Estatuko Administrazio Orokorreko zerbitzura sartzeko arautegi orokorra, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua eta Euskal Funtzio Publikoaren Legea Eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

10. Datu pertsonalak babestea

1. Hautaketa prozesuan bildutako datu pertsonalak "hautaketa prozesuak" izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatu batean sartuko dira. Haren helburua Dulantziko Udalaren aldi baterako zerbitzu eskaerei erantzuteko langileak hautatzeko prozesuen kudeaketa eta jarraipena egitea da, baita eskatzaileei haien garapenaren berri ematea ere. Fitxategi horren arduraduna Dulantziko Udala da eta eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko eta deuseztatzeko eskubideak Alkatetzaren aurrean baliatuko dira: Herriko plaza 1, 01240 Dulantzi.

2. Hautaketa prozesuan emandako datuak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei laga dakizkieke eskatzen badute. Datu pertsonalak aipatu bezala laga nahi dituzten izangaiek horretarako berariazko baimena eman beharko dute.

11. Lan poltsaren baldintzak

Lan poltsaren kontzeptua.

Lan poltsa hartarako deitutako hautaketa proba gainditu duten pertsonen zerrendak osatzen du.

Lan poltsak zein kasutan erabil daitezkeen.

1) Aldi baterako enplegu programetarako balioko du.

2) Langile lan kontratudunen lanpostu hutsak, oporrak eta bajak betetzeko balioko du.

Aldi baterako programak betetzeko aldi baterako langile lan kontratudunak izendatzeko erabili ahal izango da. Izendapena egitean aurreikusten den programaren amaiera data zehaztu beharko da, bai eta amaiera zehazteko inguruabarrak eta izendapena egitera behartzen dutenak ere.

Zein egoeratan egon daitezkeen lan poltsako partaideak.

1. Lanerako prest: ez dabil zerbitzuak ematen Dulantziko Udalean.

2. Lanean: zerbitzuak ematen ari da Dulantziko Udalaren eremuan. Egoera horretan dauden langileak, zerbitzuak ematen amaitzen dutenean, "lanerako prest" egoerara igaroko dira eta, ondorioz, lan eskaintzak jaso ahal izango dituzte.

3. Aldi baterako baja: egoera honetara igaroko dira, idatziz eskatuz gero, honako hauek:

- Aldi baterako ezintasun egoeran daudenak edo amatasun, aitasun edo lana eta familia uztartzeko baimena dutela egiaztatzen dutenak.

- Dulantziko Udalaren eremutik kanpo lanean ari direnak, 15 eguneko epean justifikatzen badute.

- Behar bezala justifikatutako kausak alegatzen dituztenak. Alkatetzari dagokio haiek baloratzea.

Aldi baterako baja egoerara igaroarazi zuen kausa amaitutakoan, interesdunak idatziz jakinarazi beharko dio Dulantziko Udalari 10 eguneko epean eta egiaztagiriak erantsi beharko ditu.

4. Behin betiko baja: hauek igaroko dira egoera horretara:

- Borondatez eskatzen dutenak.
- Dulantziko Udalarekiko enplegu harremanean borondatez baja hartzen dutenak.
- 15 eguneko epean aldi baterako baja egoerara igaroarazi duen kausaren egiaztagiririk aurkeztu ez dutenak eta epe horretan aldi baterako baja egoera amaitu dela jakinarazi edo egiaztatzen ez dutenak.
- Helbide edo telefono aldaketa ez jakinarazteagatik ezin aurkituzko egoeran alta ematen zaienak eta egoera horretan hiru hilabetetik gora dirautenak.
- Eskainitako lana onartzen ez dutenak edo onartu ondoren izendatzeko eskatutako titulu baldintzak betetzen ez dituztenak.
- Onartutako lana eskainitako beste bategatik uzten dutenak, egiten ari ziren lana 15 egunetik beherakoa izan eta eskaintza berria 3 hiletik gora izan ezean.

Edozein kasutan behin betiko baja lan poltsan baino ez da gertatuko.

5. Ezin aurkituzkoa: langile zerbitzuak alta emango die ofizioz egoera honetan helbide edo telefono aldaketa jakinarazi ez izanagatik telegramei edo egiten zaizkien telefono deiei erantzuten ez dietenei. Egoera horretan ez da batere lan eskaintzarik egingo.

Zehapen prozedura.

Funtzionarioa edo langile lan kontratuduna dagokion poltsatik baztertzeko edo behin betiko baja emateko eskatu ahal izango du alkateak, Euskal Funtzio Publikoaren Legean astun edo oso astun gisa tipifikatutako hutsegiteengatik.

Zehapen prozedura honetan, interesdunaren eskubideak bermatuko dira eta, betiere, entzualdia emango zaio interesdunari eta langileen ordezkariari ere entzungo zaie.

Deitzeko irizpideak.

a) Lan poltsaren hautaketa prozesuan ezarritako ordenaren arabera deituko da.

b) Deitutako pertsonak 24 orduko epean eskainitako lana onartuko ez balu, behin betiko baja egoerara igaroko da poltsan, behar bezala justifikatu eta alkatetzak ontzat emandako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Salbuespena lan poltsaren deitzeko ordenan.

Pertsona batek postu jakin batean lan egin badu eta 4 hilabete igaro aurretik postu hori bete behar bada, pertsona bera izendatu ahal izango da, poltsan "lanerako prest" egoeran badago.

Kontratuen baldintzak.

Izangai guztiek probaldi bat gaingitu beharko dute, kontratuaren iraupenaren arabera eta gehienez 15 eguneko.

Probaldia amaituta, zerbitzuaren arduradunak edo langileen buruak txostena egingo du, eta epaimahaiak ebaluatuko du. Lan poltsatik baztertzea ekarri ahal izango du txosten horrek.

Ezingo da inolaz ere langile lan kontratudun finko bihurtu oinarri hauetan ezarritako hautaketa irizpideak aplikatzeagatik.

Lan poltsaren indarraldia.

Indarraldia lan poltsari dagokiona izango da.

Alegría-Dulantzi, 2024ko urtarrilaren 17a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA

I. ERANSKINA

Eskabide eredua

Lorezaintza, garbiketa eta mantentzeko peoiak aldi baterako kontratatzeko lan poltsa handitzeko probetan onartzeko eskaera.

Izena

Lehen abizena

Bigarren abizena

Jaiotze data Sorlekua

Probintzia, adin nagusikoa, zenbakiko
NANA duena, telefonoa, helbidea
kalean duena, herria probintzia posta kodea
.....

Agertu eta, dagokion moduan, honako hau dio:

Lorezaintza, garbiketa eta mantentzeko peoiak aldi baterako kontratatzeko lan poltsa lehiaketa oposizio bidez handitzeko deialdian onartzeko eskatzen duela.

Karguaren zereginak betetzeko gaitasun funtzionala daukala.

Ez duela indarrean dauden lege xedapenetan ezartzen diren ezgaitasunetako bat ere.

Ez dutela diziplina espediente bidez administrazio publikoen zerbitzutik bereizi, eta ez dagoela desgaituta funtzio publikoak betetzeko.

Deialdiko 2. oinarrian adierazten den titulazioa daukala, eta eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

☐ NANaren fotokopia eranstean dut.

☐ Euskarako 1. HEren egiaztagiaren kopia eranstean dut.

☐ Lehiaketa faseari lotutako agiri hauek eranstean ditut:

.....
.....
.....
.....

Hau eskatzen dut:

Hautaprobak egiteko onar nazatela.

.....(e)koaren(a)

(sinadura)